

BULLYING LGTB-FOBIKOA EUSKAL HERRIKO NERABEETAN: PREBALENTZIA, ALDAGAI PSIKOLOGIKOEKIKO LOTURA ETA ERAGINA OSASUN MENTALEAN

Tesiaren egilea: Enara Larrain Mariño

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Nortasun, Balioespen eta Psikologia Tratamendua

Tesi-zuzendaria: Maite Garaigordobil Landazabal

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honen helburu nagusia, 13-17 urte bitarteko nerabeek bizitzan zehar, sufritu edota burutu duten bullying eta cyberbullying LGTB-fobikoaren prebalentzia aztertzea izan zen, bullying eta cyberbullying orokorraren prebalentziaren testuinguruaren barruan. Era osagarrian, nerabeek eskolan aniztasun sexualaren aurrean dituzten jarrerak ebaluatu nahi izan ziren. Bigarren eta azken helburua, bullying/cyberbullying orokorra nahiz LGTB-fobikoa burutu eta sufritu duten pertsona heterosexualek eta ez-heterosexualek artean, nortasun-ezaugarriak (adimen emozionala, empatia, zorientasuna eta genero-rola) eta osasun mentala (depresioa, estatusun soziala, sentikortasun interpersonala, somatizazioa...) alderatzea izan zen.

Ikerketaren lagina Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako 1.748 nerabek osatu zuten, zeinak zorizko laginketa baten bidez aukeratuak izan ziren eta Euskal Herriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko lagin adierazgarria osatzen duten.

Partaideek bi orduko ebaluazio-saio batean erantzun zieten, ordu-erdiko atsedenaldia zutelarik, fidagarritasun- eta baliostasun-berme psikometrikoak dituzten 10 galdetegiri. Horrez gain, neurtzeko galdetegi soziodemografiko bat osatu zuten partaideek.

Prebalentziari dagokionez, bai bullying bai cyberbullying orokorraren eta baita bullying LGTBfobikoaren biktimen ehunekoa handiagoa izan da orientazio eta identitate sexual ez-normatiboa duten ikasleen artean, ikasle heterosexualekin eta zisgeneroekin alderatuz gero. Gainera, bullying eta cyberbullying orokorraren nahiz LGTB-fobikoaren biktima eta erasotzaile ez-heterosexualek, heterosexualekin alderatuz, puntuazio altuagoak dituzte sintoma psikopatologiko anitzetan (somatizazioa, obsesio-konpulsioa, sentikortasun interpersonala, depresioa, estatusuna, etsaitasuna, estatusun fobikoa, ideia gintza paranoidea eta psikotizismoa),

psikopatologia globalean, saiheste eta ondoez sozialean (ezagunekin eta egoera berrietan ezezagunekin) eta estutasun sozial globalean.

Nortasun-ezaugarriei buruzko emaitzei dagokienez, laburbilduz, bullying eta cyberbullying orokorraren nahiz LGTB-fobikoaren biktima eta erasotzaile ez-heterosexualek, heterosexualekin alderatuz, puntuazio altuagoak dituzte ikuspegi-hartzean, enpatia globalean, alaitasun enpatikoan eta estres enpatikoan, eta baxuagoak ulermen emozionalean, erregulazio emozionalean, adimen emozional intrapertsonalean, zoriontasunean eta norberaren feminitate-irudian.

Hortaz, nahiz eta aniztasun sexualarekiko gutxiespena ukatzen duten politikak existitzen diren, ikerketa honen emaitzek frogatu dute oraindik ere hezkuntzan aldaketak egin behar direla. Izan ere, sexualitatea askatasunez adierazten duten pertsonen aurrean tolerantzia eta errespetua adieraztea helburutzat duen hezkuntzaren hutsegitea nabaritu da. Horregatik, azpimarratu nahi da oraindik hausnartu beharra dagoela eta gaur egun nagusi den hezkuntza heterosexista aldatzeko ekintzak sortu behar direla. Gainera, orientazio sexualaren arabera dauden desberdintasunek, bai sintoma psikopatologikoetan baita nortasun-ezaugarrietan ere, baieztatu dute LGTB kolektiboa, batez ere nerabezaroan, egunero erronka handiei aurre egin behar dien eta sufrimendu handia pairatzen duen kolektiboa dela. Honenbestez, ekarpen teoriko batez gain, datu hauek kontuan eduki beharko lirateke etorkizuneko esku-hartzeetan.